




euskaldunok gara euskararen indarra eta euskarria

(Bizkaiera dela eta)

Juan SAN MARTIN

Argia-ren 953. zenbakian irakurri nuen Joakin de Pedro-ren ihardespenezko artikulua eta arrazoi osoa duela iduritzen zait, bizkaieraren arazoaz. Zeren, goazen martxan, azkeneko: «Herri intransigente honetan kritika gehiago jasotzen du liburu batek bizkaieraz idatzia izatearren erderaz hulego baino». Hori da tristeena. Kritika gehiago jasotze hori ez litzake txarra alde onerako balitz, baina zoritxarrez bestela gertatzen da.

La noiz ohartzen garen euskararen indarra eta euskarria euskaldunok garela, eta euskalki hatean edo bestean idaztea hobe dela erdaraz egitea baino. Eta, gabiltzanoi, maiz gertatzen zaigu erderaz idatzi beharra ere. Horregatik, idazleak, berak hautatu behar du norentzat zelan idatzi, eta euskara hatuaren alde gaudenok jasanherak izan gaitzean euskara idazten duenarekin, arren, naiz hatuan edo naiz euskalkiren hatuan egin; zeren, bakoitzak ditu bere arrazoiak eta



euskara batua helburutzat hartu dugunontzat ere euskalki batean idazteak kalte gutxiago duelako gure hizkuntzarentzat erdaraz idazteak haino.

Mordoilo eta ez mordoiloren artean berri, berdin berdin idatzi genezake mordoilo euskalki batean zein batuan. Hortaz adibiderik aski dugu edozein kazeta edo aldizkarian **Argia** bertatik irten gabe ere. Eta, batua bera ezta H soilez neurtzen den kontua.

Argia-ren 951. zenbakian ere, izugarriko kezka-ka agertzen zituen Jexux Ikurkoko. Ez zuen ordea kezkarik izan izenordea erabiliz zenbaiten izen ona hala-hala erabiltzea. Azpitik, etika faltaren kontua bakarik ote da?

Besteak beste, alde zurretik aitortu dezadan ne-reari ez ziola tratu txarrik eman. Hala ere, hau esate-ra heldu zen: «Zer pintatzen dute Juan San Martinen bizkaierazko artikuluek Donostiako **Hoja del Lunes** egunkariaren?» Bapoi!

Ikurko delakoa ohartu ahal da zer eratako artiku-luak idazten ditudan bizkaieraz. Irakurri eta kontsi-dera hitza pentsaketen ondorioz, zertaz eta norenda-koaz ohartz-en denean. Ez noski batua-ren kontra na-golako, baizik Deharruan ere irakurleak ditudalako eta giputzak besteena ere zerbait jabetzeko. Jexux Ikurko izenpetzen duena, gezurra badirudi ere, non-bait oraindik konturatu gabea da **Hoja del Lunes**-koetan noizbehinka bizkaieraz egiten dudala. Baina, bi urte igaroak dira J.J. Azurzak **El Diario Vasco**-ko artikulua batean kezuz salatu ninduela **Hoja del Lu-nes**-ean bizkaieraz H letra erabiliaz idazten nuelako. Orduan oraindik Eusko Jaurlaritza ezertariko hiderik eta erizirik agertu gabe zegoen garaian. Beraz, ezta gauza hain herria, orain pentsaarazi badio ere. Jakin heza nik ez diodala inoiz utzi noizbehinka zer-bait bizkaieraz idazteari. Nola ba, amagandiko hiz-keraz aparte lehendik bizkaierazko bi libururen egilea izanik. Bai, Jexux (?), baturako arauak agertu ondorean ere, ez diot utzi urtean zehar han-hemenka bizkaieraz idazteari. Eta, zer? Euskaldun berriek aisa uler dezaten noizbehinka haurren erako euskarari idaztera ere behartu naitz, batuzaleak hala eskatu, eta jakingo duzun bezala idazkera hortako aldizkari-rik ere bada. Eta, oraindik orain, bizkaiera soila muntzatzen den kopurua euskaldun herriena baino handi-agoa da. Zoritxarrez, hala nahi baldin baduzu, bai-na errealitatea hala da. Horregatik, euskaldunon in-darrok berez hain ahulak izanik, guk ez ote dugu ba eskubiderik bizkaieraz euskalkia baizik ez dakitenei ere beren muntzairaren erara zerbait idazteko?

Gizonak hori baino kopeta zabalagoa behar du. Alor guztiak dira jorra beharrezkoak. Baina, hea de-zaiozun ekintzen alde onari. Azkenez, euskaldunok gara euskararen indarra eta erdara hutsuan ari dire-negandik ezin dezakegu ezer espero. Bai ordea euskalkiren batean muntzatzen direnegandik. Zoritxa-rraz, ez bai dugu indarririk sobra.